



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)  
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**Derrigorrezko diru-bilketa**

Administrazio honi egotz ez dakizkikeen arrazoiengatik Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99.4 artikuluan xedatutakoaren arabera interesdunari edo horren ordezkariari jakinarazpena egiterik izan ez denez, eta, aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera, egin diren jakinarazpen ahaleginak espedientean jasota, ediktu honen bidez dei egiten zaie ordainketa egitera behartuta daudenei eta horien ordezkariari aurrez aurre jakinarazteko espedientean jasotako prozeduren ondoriozko administrazio-egintzak. Agertzeko epea hamabost egun naturalekoa da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita: astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara, bulego kudeatzailean (Iñigo Arista kalea 16, etxabea, 31007 Iruña). Epe horretan agerraldirik egin ez bada, jakinarazpena egintzat emango da, lege-ondorio guztietarako, agerraldia egiteko epea bukatu eta hurrengo egunean bertan.

**OHARTARAZPENAK**

Egitate horren aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

- a. Berraztertze errekurso, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- b. Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Premiamendu-prozedura, nahiz eta helegitea aurkeztu, Nafarroako Foru Erkidegoko Diru Bilketako Erregelamenduko 91. artikuluan xedatutako moduan eta baldintzetan soilik geldiaraziko da. Halaber, jakinarazten dizugu espedientea eskuragarri duzula, goialdean ageri den bulego kudeatzaile honen helbidean, egin nahi duzun edozein kontsulta egiteko.

Lesaka, 2017ko Abenduaren 14an.-

Diru Biltzaile Exekutiboa,

